

NERE BORDATXOTIK

Joxe Manuel Ibar «Urtain»

Europako txapeldun dugu

Bakar batzuk ba genduan itxaropena ala izango zala. Aspalditik ari giñan esaten. Baiña (au da egia), zorrotzat bezelatsu juzkatuak giñan «Urtain» mailla ortara iritxi-ko zala sinisten genduanak.

Nai zuanak nai zuala pentsa zezala, geurean geunden «Urtain» ondo ezagutzen degunok. Erdi-erditik asmatu degu gaiñera.

Ogeitazortzigarren burrukaldia zuan gure Jose Manuelek.

Bat da Europako bozealarien txapela jaszea, ta beste bat ogeitazortzi kontrarioak lurrean zabalka uztea.

Ori egin du gure Joxe Manuelek; iñor ez zu errespetatu. Lenengoak bezela azkenengoak, danak parade- ro berdiña izan dute; danak etzan bearra, zutik egon ezinda. Au ezta puntutara irabaztea; au ezta dudako burrukaldiak erabakitzea.

Orain urte bi zeñiek pentsa bear zuan onelakorik?

1968'garren urteko Uztailaren 24'garren gabea egin zuan lenengo burrukaldia. Ordizian (Villafranca), ain zuzen.

Ikusi nuan «Urtaiñen» lenengo agerraldia Ordizian; ikusi dut azkenengo, Madriden.

Bietan irabazte, lenengoan bezela azkenengoan. Baita tarte ortan izandako beste ogeitasei neurketetan ere. Ta... danak «zerraldo» utzita.

Lenengo egunetik nuan nik itxaropena «Urtain» Europako txapeldun izango zala. Orren azkar izango zanik, egia esan, ez nuan uste.

Europa aundi ta zabala da. Alde guzietan izaten dira amaren semeak, eta bizi gaiztoa da beste danak atzean ustea.

Aukeran azkartxo bezela eraman dute «Urtain» Europako txapelketa jokatzera.

Ondo irten dira gauzak eta ondo

kontatu bear, baiña gure gizonak oraindik ez zu motiborik onenei aurpegi emateko.

Edozein ofizio bere modu batean ikasteko, denbora bear da.

Deporteko ofizioei dagokienez, bozeoa jotzen dute zaillenetako bat; denborarik geien eskatzen duteneko bat.

Joxe Manuelek meritu arrigarriak ditu ain epe motxean iritxi dan gallurrera iritxi dalako.

Bizkorra dala buruz, esan-entzulea, lezioak azkar ikasten dituan?

Zuk nai duzun guzia. Baiña, ez gerezi ta ez pikorik, ezta eltzen bere denbora eldu arte.

1970'garren urteko apirillaren irugarren eguna.

Etzirudian Madriden geundenik. Euskalduna besterik ezaipazan ikusten bazter guzietan.

«Apirillaren laugarren egunean Europako txapelduna «Urtain» izango zala nere iritzi, baiña diran bezela esango ditut gauzak.

Etzan an sobrerik ezer; ez gaude erronkan aritzeko moduan.

Weiland alemana etzan edoein. Zerbaitegatik zeukan irabazia txapela. Merezi zualako, noski.

Mutil koskor bat ematen zuan Joxe Manuelek alemanaren ondoan. Zuetako geienok ikusiko zenduten telebisioz. Etxaukazute nik esan bearrik.

Amazazpi kiloz astunagoa alemana; luzeagoa, zabalagoa, beso aundiagoak. Ezker beldurgarria, berez ezkerria izanik. Len ere aberi asko egindako esku ezkerria, ta ostiral gau artan ere egundokoak egin zituan.

Urtaiñi eman ziskion gihelakoak ez pentsa nolanaikoak zianik.

Aiek artuta zutik iraun zuanean, ezta makala gure gizona.

Urtain zutik gelditzearekin geien

arritu zana Weiland bera izan zan. Ala adierazi zuan deklarazioetan.

Ostiral gau artan nolana aaztu ez zitekean zerbait gertatu zan Madriden.

Weiland alemana etzan edozein kilo ta erdiko gizon puska, lau aldiz erori zala; lau aldiz jo zuala lurra. «Urtain txikiak» grano batean ez. Zutik denbora guzian.

Onk zerbait adierazten digu. Ingles arbitroak esan zuana egiztaztera dator.

«Urtaiñek» bezelako joa duan bozealaririk eztagoala munduan, esan zuan Roland Raquin ingles arbitroak.

Etzuan ordea ori bakarrik esan. Baita beste zerbait ere.

«Bosgarren eta seigarren ekinaldietan asko nekatu zala; estu ta larri ibili zala. Gertatu, preparatu, zaildu ta zimeldu egin bear duala.»

Europa atzean utzita aurrerako bideak artzekero, ta baita Europako txapelari buruan eustezkero ere, ondo preparatzea da bearrezkoena.

Ikasi bear diranak ikastea.

Dakian baiño geiago jakiteko motiborik ez zu «Urtaiñek».

Bozeoaren berririk etzekiala menditik jetxi, ta oso illabete gutxian txapelketa jokatzera azaldu da. Irabazi gaiñera.

Zer eska genezaioke ortik aurrera?

Nik —zertan ukatu— Europako txapeldun izango zala itxaropen biza nuan, baiña ez nuan uste orren azkar izango zanik.

Denbora geiago bearko zuala pentsatzen nuan.

Astora ta asken onak izan situen «Urtaiñek» Madriden.

Tartean izan zan komeririk asko bolara batean. Iñork etzuan duro bat arrixkatu naiko «Urtaiñen» alde. Diranak diran bezela esan bear dira, erdipurdika ibili gabe.

Oso une txarrak igaro genituan emendik Madrida joan giñanok.

Etzagoan gure arpegietara begiratu besterik.

Nik neronenik ez nuan ikusten. Bai ordea nere alboan zeuden Juanito «kojua», Jesus Errazti, Sabadell, Igeldoko Pako ta beste askorenak.

Poz bat ekarri nuan etxera.

«Tongo» konturik ez al duala iñork geiago aitatu.

Weiland alemanak Madriden «tongo» egin bazuan, oraindik ezta munduan izan «tongo» gabeko burukaldirik.

Gu ezin konturatu gindezke zenbateko naigabea zan alemanarena. Oso illabete laburretan iraun dio txapelak buruan.

Zeruak lur jotzea ainbat pentsatzen zuan «Urtaiñek» kendu bear ziola.

Bolara batean oso illun ikusi genduan zeraldea.

Bost xentimo etzitezkean eman «Urtaiñen» aldetik. Kezka bizi batek artu ginduzen an geunden amami milla edo geiago pertsona.

Eskerrak zazpigarren ekinaldian gure gizonak izan zuan bizialdiari! Antxe erabaki zan auzia.


Naikoak eginda gelditu ziran, bata bezela bestea. Etzan geiagoren bearrrik. Gaizki, larri, «Urtain»; are ta gaizkiago Weiland. Berenak artu zituzten biak.

Iritzi bat eman al baneza, ematea libre balitz, «Urtain» pixuz arintxo dagoala da nere irudipena. Geiagi joa-arazi diotela entrenamentuetan.

Iru-lau kilo artzeak on aundia egingo liokela.

88 kilo ta gramo batzuk eman zitan «Urtaiñek» pixuan.

Bein baiño geiagotan entzuna naiz berari, 91-92 kilo dala berari dagokion pixua; aiekintxe arkitzen dala gustora bere gorputza.



Nik baiño obeto dakite aren zuzendari ta maixuk zer komeni zaion eta etzaion. Iritzi bat ematea ezin galerazi ordea iñori, naiz ta ni bezelako ezjakin bat izan.

Indarrez eta sasoiz berdin izatera, astuntasun pixka bat ezta kaltegarri.

Gaur «Urtain» zailduta dagoan bezela, gorputzean iru-lau kilo geiago izateak erruz esan nai duala pentsatzen dut Weiland alemana bezelako erraldoi (gigante) bati aurpegi emateko.

Puntutara irabazitako edo galdutako burrukaldirik ez zu «Urtaiñek». Dan danak atarramentu berdiña izan dute; danei beia jo-arazi die lbañarrietako indartsuak.

Gorputzean amazapi edo ogei kilo geiago izan arren, «Urtaiñek» ondo jotakoa lurrera beti. Lenengo egunetik esan nuan auxa.

Ori or gelditzen da istorirako. Ondorengoak etorriko dira; gero ere izango dira bozelariak, noski.

Baiña, ia nork ontzen duan «Urtaiñek» jarri duan marka. Arretaz egon begira.

Ogeitazortzi burruka, ogeitazortzi garaipen; ogeitazortzi gizon beia jo dutenak. Ori eginda artu du Europako txapela.

Bejondaizula Joxe Manuel!

Zugan itxaropen genduanok ez gaituzu lotsagarri utzi, zearo batekoz bestera baizik.

Gero geroak, zu zaitugu gaur Europako txapeldun. Ondo kostata irabazitako txapela, baiña ondo merezia, bide batez.

Orain lagun asko izango dituzu, goian ikusien zaituztelako.

Etzera illuna ta tontoa. Zeuk dakizu iñork baiño obeto pozaldietan eta ilunaldietan egitazko lagunak zein izan dituzun.

Bararri

